

Donostiako Kubo-kutxa aretoak Rafael Ruiz Balerdi margolariaren erakusketa antologiko bat aurkeztuko du




Donostia, 2017ko ekainaren 8a. Donostiako Kubo-kutxa aretoak *Balerdi (1934-1992)* erakusketa antologikoa aurkeztuko du 2017ko ekainaren 9tik irailaren 24ra. Javier Viar Olloui dugu erakusketaren komisarioa, aurten arte Bilboko Arte Ederren Museoaren zuzendaria, eta, beraz, artistaren obra ezin hobeto ezagutzen duen pertsona. Artista hil zenetik 25 urtera, bere jaioterrian egin nahi zaion omenaldia da erakusketa hau.

Erakusketan, egile emankor honen 98 obra daude bilduta; tartean, olio-margolanak, marrazkiak, bere “klarion” ezagunak eta *Homenaje a Tarzán I: La cazadora inconsciente* (Tarzani omenaldia I: ehiztari inkontzientea) filma. Sortzaile kartsu, oldarkor eta energiaz betea da Rafael Ruiz Balerdi, eta bere obra koloretsuek aukera ematen digute egilearen keinuak, marrak eta mugimenduak imajinatzeko. Bere konposizioetan suma daitekeen erritmoa, zehazki, artistak musikarekiko duen interesaren ispilua da.

Obrak hainbat bilduma pribatutakoak eta hainbat erakundetakoak dira: besteak beste, Kutxa Fundazioa, Artium, BBK, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza, Laboral Kutxa eta Nafarroako Unibertsitatearen Museoa. Erakusketako pieza ugari Bilboko Arte Ederren Museokoak dira, bai eta artista honek museo horretan utzitako ondarekoak ere. Bilboko Arte Ederren Museoaren lankidetzari esker, Balerdiren ibilbideko piezarik garrantzitsuena jasoko du erakusketak; hain justu, formatu handiko *El Gran Jardín* (Lorategi Handia) olio-margolana.

Rafael Ruiz Balerdi



ALBERTO SCHOMMER
Balerdiren erretratu. 1985

Rafael Ruiz Balerdi (Donostia, 1934 - Alacant, 1992), gerraosteko abangoardiako izen handienetako bat da. Marrazkilari handi eta kolorista bikain honen obrak aukera estetiko ugari igaro zituen, harik eta keinuaren adierazpen informalistarekin topo egin zuen arte. Alabaina, ikerketa formal oso ahalmentsu baten abiaburua baino ez zen izan hori, bere lanaren ardatz pertsonalena izan zena.

Nerabezaroan, paisaien eta erretratuen hasiera figuratiboa izan zuen. 1955ean, berriz, Eduardo Txillida adiskideari esker, nazioarteko abangoardiaren hizkuntzak ezagutu zituen, eta Kubismoaren zein Espazialismoaren eraginpeko obrari heldu zion. Hamarkada horretako azken urteetan, Goyaren margolan beltzen eta Europako Abstrakzio Lirikoaren eraginez, arnas poetiko handiko obra oso fin eta egikaritze sensualekoa margotu zuen. 1960. urtean, behin betiko haustura etorri zen, eta muturreko informalismorako bidea hartu zuen, bere prozesurik originalerako atea ireki ziona.

Hala, keinu-zeinuen baitan eraikitako forma baten bilaketan murgildu zen, etengabeko esku-hartzeekin, batzuetan baita akigarriak zirenak ere, eta obra batzuetan, mutur-muturrera iritsi zirenak, ia xehaketaraino. Beraz, esperientzia horrek iraun zituen hamar urteetan, paralelotzat jo daitezkeen baina egiazki elkarren segidakoak diren bi bide bereizten dira: bata, keinuan eta orbanean oinarritutako informalismoaren jarraitutasunarena; eta, bestea, forma kristalizatuak egitearena. Bigarren kasu honetan, zehazki, obra berean, hasierako bat-bateko esku-hartzeari gainjartzen zaio.

Urte horietan, gainera, bestelako albo-esperimentu batzuk ere egin zituen. Ondoren, olio-margolana alde batera utzi zuen Balerdik, eta denbora batez, baita ia-ia bere arte-jarduera ere, eta herritarren esku-hartze aldarrikatzaileetan murgildu zen. Jarraian, zortzi urtetik gorako epealdian, pastelezko klarionekin margotu zuen paketatzeo paper gainean. Hala, aberastasun formal eta kromatiko itzelezko ziklo bat sortu zuen, non izugarritzko kontrastea dagoen emaitzaren adierazpen-luxuaren (deskribatzeko zaila dena, bere iradokizunen askotarikotasuna dela tarteko) eta materialen txirotasunaren artean. Azkenik, olio-pinturara itzuli zen 1985ean, eta horrek mugarik gabeko arterako atea ireki zizkion. Han bildu zitzaizkion aurretiko esperientzia guztiak, jasotako eragin guztiak eta gogoratutako irudi guztiak, eta horien guztien berehalakotasunari, jakinduriari eta askatasunari esker, etapa zirrargarria eta ameslaria izan zuen bere heriotzara bitarte.

Balerdiren margolaritza bikainak eragin nabarmena izan zuen beste artista garaikide batzuegan. Margolaritza horren oinarrian irudiak sortzeko gaitasuna, begirada ausart eta sakona eta askotarikotasuna zeuden; gainera, egikaritzeko gaitasun handia eta kolorearen zentzu liluragarria izan zituen lagun, erabiltzen zuen teknika erabilia ere. Baina, beste informalista askori bezalaxe, Zen artearen pentsamoldeak eta egiteko moduak nonbait eragin bazion, pentsamolde hinduaren alderdi batzuetan izan zen, han aurkitu baitzuen bere margolaritzarako oinarri teorikoa. Aurobindo filosofoak aldarrikatzen zuen 'ekintzaren yoga' ideia zen ardatza; hots, *Bhagavad Gitaren* testu zaharretik zetorren ideia, kontenplaziozko yoga ahistorikoari aurre egiten ziona. Balerdik uste zuen margolaritzaren egikaritzean bertan adierazi zuela hori.

Erakusketa

Erakusketa, hain zuzen, artista gipuzkoarraren arte-ibilbide luzean zehar egindako ibilera bat da. Horren bidez, egilearen lan-prozesuak ulertu ahal izango ditugu, bere etengabeko ikerketan eta arte-bilaketa pausagabeen barna iraganez.

Lehenengo aretoan, artistak paperean egindako obra emankorra egongo da ikusgai. Ondoren, erakusketa honako atal hauetan banatuko da:

Geometriatik abstrakzio lirikoa. 50eko hamarkada. Hasiera batean obra geometrikoarekiko izan zuen interesean bada hautemateko moduko beste eragin bat ere; esaterako, *Geométrico oscuro I* (Geometriko iluna I) lanean. Zehazki, Paul Klee-ren eta hark modulu samurrekin egindako haur arkitekturaren eraginaz ari gara; eta baita Pablo Palazueloren eraginaz ere, zeinek hasierako margolanetako batzuk Klee-ren eraginpean egin zituen. Lan horien garapenean, geometria galduz joan zen, eta abstrakzio lirikoaren munduan sartu zen: konfigurazio irekiagoak, forma ez hain zorrotzekoak, argi-efektuetan, gardentasunetan eta deskribapen ez-zehatzetan bilduak, espazialismoaren aurkako posizioan eta espresionismo poetiko eta misterioitsu batetik hurbil kokatzen zutenak.

Lehenengo informalismoa. 1960-1966. urteak. 1960an, margolaritza informalista bati heldu zion bat-batean Balerdik, keinuzko ezaugarriak zituena eta forma irmo eta gutxi-asko zehatzekin egindako modelatu sentsualen bitartez egikaritutako aurreko abstrakzio lirikoa hausten zuena.

Ondorioak. 1967-1972. urteak. *Cardenal* (Kardinala) izeneko margolanen sailean, bestalde, jarraipena egin diezaiokegu 1974. urtera arte Balerdiren prozedura sortzaile osotua izango zenari. Horietan, margolan informalisten keinu eta orban gutxi-asko ausazkoak landu zituen egileak, forma zehatz eta trinkoak lortzeko asmoz, betiere, hiru dimentsioko formetarako joerarekin.

Aro horretakoak dira, halaber, bere Lorategiak lanak, zinez koloretsuak. Obra horietan nabarmenak dira hainbat eragin: *Art Nouveau*arena, Monet-en lorategi eta igelbelarrena edo japoniar artearena.

Forma klistalizatuak. 1972-1974. urteak. Balerdik hasiera batean Madrilen egin zituen margolan informalistak forma kristalizatuko obra bihurtu ziren, sarri askotan kolore indartsukoak. Etapa honetako obrak desberdinak dira euren artean, baina mundu txukun, trinko eta itxi bat sortzeko desira bakarraren baitan daude eratuak, ausazko orbanen eta keinu-zeinuen bilakaeraren bidez.



Los gigantes (Erraldoiak), 1972
Bilduma partikularra

Klarionak. 1977. urtean, beirate batzuen zirriborroak marraztu zituen Balerdik, pastelarekin, paketatze paper gainean. Sortzeko beste modu baten hasiera izan zen hori, eta halaxe lan egin zuen hurrengo urteetan, 1985era arte. Nahiz eta teknikarako eta egikaritzeko bere unitate berezia izan, espazio txikietan esku-keinuaren erabateko domeinua duena eta kolorea ikaragarri ondo baliatuz, klarionen lanak askotarikoak dira emaitzei dagokienez: batzu-batzuk informalistak dira, baina beste batzuek oso eraikitako espazio-formazioetara jotzen dute.

Berriz ere olio-pinturara. 1985-1986. urteak. 1985. urtean, Balerdi berriro hasi zen olio-pintura erabiltzen, eta horrekin, bere lanaren azken epealdiari ekin zion, 1992. urtera arte iraun zuena, hil zenera arte. 1985. urtean eta hurrengo udaldietan Donostian egindako margolanen izenak, salbuespen gutxi batzuekin, *Composición* (Konposizioa) eta egikaritze-urtea ziren. Hasiera batean, azken klarionen antzekotasun handia zuten; nola euren formatu horizontalagatik, hala plano txikiekin osatutako konposizioagatik. Formatuari esker, paisaiaren ideiak toki handiagoa hartu zuen, eta, horrenbestez, olio-margolanetan ostertza agertzea ere ohiko bihurtu zen.



Composición 86-I (Konposizioa 86-I), 1986
Kutxa Fundazioa

Prensa-oharra

Azken olio-margolanak. 1987-1992. urteak. Lanerako zuen kar izurgarria zela medio, 600 margolan baino gehiago egin zituen berriz ere olio-pinturari heldu zionetik hil zenera arte; esan nahi baita, 1985etik 1992ra bitarte. Obra horietan, Balerdik oroimenean zituen akuilu piktoriko guztiak ageri dira, toki bakoitzeko ikuspegi anitzekin edo bere obra berekien zein aurretiko obsesioen gomutarekin elkartzen zirenak, kaleidoskopio sortzaile liluragarri eta erraldoi bat osatzeko.

Lotutako ekintzak

Ekainaren 29an, erakusketaren komisario Javier Viarrek *Balerdiren ospakizuna* hitzaldia emango du, Kubo-kutxa aretoan.

Ohikoa den moduan, hezkuntza-zorroztasunaren ildoari jarraituz, eta artearen arloko hezkuntza ezagutza sortzeko tresna gisa ulertuz, familiei zuzendutako jarduerak eta tailerrak egingo dira, larunbatetan, 12:00etatik 13:30era. Bertan, 5-11 urte arteko haurrek parte hartu ahal izango dute, baina heldu baten laguntzarekin.

Gainera, Kubo-kutxa aretoan, doako ikustaldi gidatua egongo da larunbatero, 18:30ean, euskaraz, eta 19:30ean, gaztelaniaz.

Datu praktikoak

Balardi (1934-1992)

2017ko ekainaren 9tik irailaren 24ra

Komisarioa

Javier Viar Olloqui

Kubo-kutxa

www.sala-kubo-aretoa.eus

Zurriola 1. Kursaal (20002 Donostia)

Tel.: 943 012 400

Helbide elektronikoa: kubo@kutxa.eus

Twitter / Instagram: @kubokutxa

Facebook: facebook.com/kubokutxa

#Balardi

Ordutegia

Astartetik igandera, 11:30etik 13:30era eta 17:00etatik 21:00etara.

Sarrera doakoa da.